



1. SARRERA

Zuhaitz-etxeekin martxan jarri nahi dugun proiektua, zerbitzu bat da. Gure proiektua, asteburu lasaiak pasatzeko zuhaitzetan etxe jasangarriak eraikitzean datza. Izan ere, Goierrin herri txiki ugari daude eta horiek guztiak indarra galtzen ari dira. Gainera, baso ugari daude bertan eta ez dago zuhaitz-etxerik. Gaintzan bertan baso bat dugunez, arazo hori asetzeko gure proposamena Gaintzako basoko zuhaitzetan etxeak eraikitzea da, edozein pertsona etorri daitekeena, Goierriko naturaz gozatzeko aukera izan dezaten.

Proiektu hau aurrera eramateko, ideia berritzaileak gauzatu ditugu, hala nola, webgune bat sortu dugu, zerbitzua edonorentzat eskuragarriagoa izan dadin. Gainera, zerbitzu hau jasangarria izatea nahi dugu eta horretarako, etxeak, oheak, armairuak, aulkiak, eta abar egiteko erabilitako materialak, inguruan ditugun basoetatik ateratako zurez osatuak egongo dira. Etxeko argindarra eguzki-plaken bidez lortuko da, eta etxeak berotzeko, egurrezko berogailuak erabiliko ditugu. Hala eta guztiz ere, gure proiektua gauzatu ahal izateko egin ditugun pausoak hurrengo ataletan azalduko ditugu zehatzago.